



53. EUSKAL SOZIOMETROA: HEZKUNTZA (2013ko azaroa) Prensa oharra

EGOERAREN BALORAZIOA

Langabezia eta egoera ekonomikoarekiko kezka

EAEko egoera ekonomi koa oso gai zki ikusten jarraitzen du jendeak; izan ere, 2002tik jasotako txarrena da eta Europar Batasuneko biztanleek beren herrialdeko ekonomiari buruz duten batez besteko iritzia baino okerragoa. Hala ere Espainiako herritarrek Espainiako egoera ekonomikoari buruz duten iritzia baino hobea da nabarmen.

EAEko herritarren ia erdiek uste dute datoz en hamabi hilabeteetan EAEko ekonomia berdin mantenduko dela, laurdenek hobera egingo duela uste dute eta beste laurdenek okerrera egingo duela. Hobekuntza espero dutenak gehiago dira hemen Europa Batasuneko batez bestekoan baino. Espainiako ekonomiaren bilakaera posibleari buruzko iritzia ezkorragoa da; EAEko 10 biztanletik 4k uste dute okerragotu egingo dela.

Herritarren ustez, EAEko arazo nagusiak hauek dira berriz ere: lan-merkatuarekin lotutakoak (%78k aipatu dituzte hiru arazo nagusien artean), arazo ekonomikoak (%39, 2004tik jasotako aluena) eta politikarekin lotutako arazoak (%26). Estatuarekin alderatuta, Euskadin gutxiago aipatu dira politikarekin lotutako arazoak eta askoz gutxiago ustelkeria eta iruzurra.

Herritarrei gehien eragiten dieten arazo pertsonalak berriro ere hauek dira: lan-merkatuarekin lotutakoak (%56k aipatu ditu hiru arazo nagusien artean, nahiz eta beherantz jarraitu urte hasieran izandako puntu gorenetik), arazo ekonomikoak (%30) eta osasuna eta osasungintza (%21ek aipatu du, 2004tik jasotako altuena).

Lanarekin, krisiarekin eta egoera ekonomikoarekin lotutako gaiak oso presente daude EAEko herritarren eguneroko bizitzan, gehienek aipatzen baitituzte euren elkarrizketa-gai ohikoenen artean.

HEZKUNTZA

Herritarrek oniritzia eman diote Hezkuntzari. Euskadin Estatuan baino baliabide gehiago bideratzen dira, baina gutxitzen ari dira.

Herritarrek oniritzia (2 puntu edo gehiago 1-3 eskalan) eman diote Eusko Jaurlaritzak azken urteotan aztertutako arlo guztietan egindakoari, salbu eta gazteria politika, etxebizitza eta ekonomian egindakoari. 2008tik ona hobera egin du bakean, gizon eta emakumeen arteko berdintasunean, ingurumenean, immigrazioan eta etxebizitzan egin dako lanaren balorazioak, eta okerrera egin du, aldiz, kultura, osasungintza, hezkuntza, gizarte ongizatea, hirugarren adina eta ekonomian egindakoari buruzko balorazioak.

Herritarren herenek uste dute EAEn hezkuntzaren funtzionamendua duela hamar urte baino hobea dela, %21ek berdin ikusten dute eta %29k okerragoa dela diote. Gehiengoak (%61ek) uste du EAEko hezkuntza sistema Estatu gainerako lekuetakoa baino hobea dela eta %45ek Europar Batasuneko gainerako herrialdeetakoa baino okerragoa dela.

EAEko herritarrek oniritzia eman diote euskal hezkuntza sistemari, aztertutako alderdi ia guztietan; puntuaziorik onena irakasleen formazioak jaso du (6,7 0tik 10erako eskalan). Ondoren datoz ikasteko zailtasunak dituzten ikasle eei ematen zaien laguntza (5,8), ika sle immigranteen integrazioa (5,7), irakasle bakoitzeko ikasle kopurua (5,4) eta irakasleek ikasleen aurrean duten autoritatea (4,9).

Eusko Jaurlaritzak hezkuntzara bideratzen dituen baliabideei dagokienez, biztanleria ia erdibituta dago: behar diren baliabideak bideratzen dituela uste dutenak (%44) eta behar baino gutxiago bideratzen dituela uste dutenak (%45). 2004rekin alderatuta, nabarmen areagotu da behar diren baino baliabide gutxiago erabiltzen diren pertzepzioa; izan ere, %39k uste dute Eusko Jaurlaritzak duela hamar urte baino baliabide gutxiago erabiltzen dituela hezkuntzarako. Hala ere, gehiengoak (%52k) uste du Euskadin Estatu beste komunitate batzuetan baino baliabide gehiago bideratzen direla hezkuntzara.

Ikasleek helburuak betetzea lortzen dute. Ingelesaren ikasketa hobetu behar da.

Derrigorrezko hezkuntza bukatzean ikasleek duten zenbait helbururen betetze mailari buruz herritarrei galdetuta, zabalduen dagoen iritzia da ikasle gehienek lortzen dutela zuzentasunez hitz egin eta argudiatzea (6,1), oinarriko eragiketa matematikoen ezagutza (6,1), zientzia rekiko eta arazo teknikoarekiko jarrera positiboa (5,7), irakurketaren aldeko jarrera (5,5), behar besteko kultura-maila (5,5), bizitzan zehar ikasten jarraitzeko motibazioa (5,5), helduak direnerako autonomia pertsonala (5,2), bizimodu osasuntsua eta sustantzia kaltegarriekiko gaitzespena (5,1) eta lanpostu bat lortzeko behar besteko formazioa eta trebetasunak (5,1).



Hizkuntzen ezagutzari dagokionez, herritarrek 0tik 10erako eskalan 7,5 punturekin baloratu dute ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitzean duten gaztelaniaren ezagutza-maila, 6,9 puntu ematen dizkiote euskararen ezagutza-mailari, 4,9 ingelesaren ezagutza-mailari eta 2,8 beste hizkuntza batzuenari.

Herritar gehienek (%53k) diote onela dela klaseetan ikasle aurreratuagoak eta motelagoak elkarrekin egotea, lehenengoek bigarrenen laguntzen dietelako; aldiz, %28k txarra dela usate dute motelagoak besteen eritmoa atzeratzen dutelako. Azken iritzia hau 2004an baino zabalduago dago.

Nahiago den hizkuntza ereduari dagokionez, eredu hirueleduna izan da aipatuena (%39), eta ondoren Deredua (%30), Beredua (%21) eta azkenik Aeredua (%5).

LOMCEren gaitzespen orokorra

Herritarrek LOMCEren aurkako jarrera argia azaldu dute, nahiz eta ez-ezagutza ere nahikoa zabaldua egon: %52 Legearen oso edo nahikoa kontra daude, %5 oso edo nahikoa alde eta %42k ez du ezer entzun hari buruz edo ez du iritzirik eman.

Eusko Jaurlaritzak LOMCEren inguruan izan beharko lukeen jokabideari buruz, bi iritzia nagusi daude, horietako bakoitza herritarren %39k adierazi dutelarik: bata, dioena Legearen neurri guztiak ez aplikatzeko Eusko Jaurlaritzak Espainiako Gobernuarekin negoziatu beharko lukeela; eta bestea, Espainiako Gobernuarekin liskarra ekarriko badiore ere Jaurlaritzak Legea euskal hezkuntza sisteman ez lukeela aplikatu behar dioena. %6ren ustez aplikatu egin beharko litzateke eta %16k ez dakite edo ez dute erantzun.

JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

Euskal buruzagi politiko guztien balorazioak hobetu dira. Alderdiak ez dute gaintzen.

Alderdi politikoetako batek ere ez du herritarren oniritzia jaso (5 puntutik edo gehiago 0-10 eskalan). Puntuaziorik altuena EAJk lortu du (4,3) eta ondoren EH BILDUk (3,6) eta PSE-EEk (3,1). 3 puntuen azpitik gelditu dira IU-Ezker Anitza (2,9), Ezker Batua (2,8), Equo (2,3), UPD (1,9) eta azkenik PP (1,7). EAJ, EHBILDU eta IU-Ezker Anitzaren balorazioak hobetu egin dira apiriletik eta gainerakoak berdin mantendu dira, salbu eta PP, otsailan lortutako puntuazio bera izan baitu, 1995ean bilduma hasi zenetik jasotako baxuena.

Iñigo Urkullu Lehendakaria da 5 puntutik gorako balorazioa jaso duen buruzagi politiko bakarra eta herritarren gehiengoaren aprobazioa jasotzen duen bakarra (%58). Balorazioan, ondoren datoz Laura Mintegi (4,8), Patxi López (4,1), Arantza Quiroga (3,2) eta Gorka Maneiro (2,8). Aztertutako euskal buruzagi politiko guztien balorazioak hobetu dira apirilean jasotakoekin alderatuta, Lehendakariak eta Laura Mintegik bildumako puntuaziorik altuena lortu dutelarik eta Gorka Maneirok 2010ean lortutako puntuazio gorenarekin berdinduz.

EAEko herritarren %25 ados daude Euskal Herriaren independentziarekin, %31 egoeraren arabera ados edo kontra egongo lirateke eta %29 kontra daude. %15ek ez dute iritzirik eman.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta dait eke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 2.289 lagunek osatua da. Elkarriketak aurrez-aurre egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 2,1$ ekoa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2013ko urriaren 8a eta 11a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.net/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 25a